

txi
kitto!

2026ko urtarrila



**HISTORIAREN
AURRETIK
ZEGOENA
KONTATZEN**

Aurkibidea

TXISTEAK 3

IKASLEEKIN
BERRIKETAN..... 4

IKASTETXEETAKO
BERRIAK 6

BANAKIXAN
BANAKIXALA 8

GURE NAGUSIEKIN
BERBETAN 9

SUKAL-SALTSAN 10

DENBORAPASAK 11

LEHIAKETA 13

ZER IRAKURRI
BITXIKERIAK..... 14

IPUINA 15

ZU BAI MARGOLARI 16



Argitaratzailea

...eta kitto! Euskara Elkarte
Urkizu, 11 - solairuartera.
20600 Eibar
Tel: 943 206776

Erredakzio kontseilua

Maider Aranberri,
Ana Aizpurua, Ekhi Belar,
Irati Alvarez, Irune Jaio eta
Eibarko ikastetxeak.

Administrazioa

Marisol Uriarte

Erredakzioa

Irati Alvarez eta
Ekhi Belar

Ikusentzunezkoak

Yanire Sagredo / Ohiane Zabala

Diseinua

Irune Jaio

Azaleko argazkia

Ekhi Belar

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

HISTORIAURRERA BIDAIA



TESTUA: **EKHI BELAR** / BIDEOA: **YANIRE SAGREDO-OIHANE ZABALA**

La Salle Isasi ikastetxeko 4. mailako ikasleek historiaurrearen inguruko ikasketak egin dituzte lehen hiruhilekoan eta, orain, guztioi eman digute horren berri.

Historiaurrea gizakia sortu zenetik idazketaz jasotako lehen agiriak jaso arteko historiaren aroa da, hau da, K. a. 4000. urtera arte gutxi gorabehera. Pentsa, beraz, zenbat gauza gertatu ahal ziren denbora horretan guztian, baina Ibon Lete, Libe Salaberria, Markel Tardio eta Malen Perez de Lastrak bikain kontatu dizkigute historiaurrearen ezaugarri batzuk.

Besteak beste, kontatu digute historiaurrean hiru aro egon zirela (Paleolitoa, Neolitoa eta Metalen Aroa), hezurrek hainbat erabilera zituztela, suaren funtzioa eta garrantzia... Gainera, Ekainberrira txangoa egin zuten eta kobazulo baten erreplika ikusteko aukera izan zuten!

BIDEOA
YOUTUBEN





Libe Salaberria

9urte

Paleolitoan jendea nomada zen. Neolitoan herriak sortzen hasi ziren eta nekazaritza eta abeltzaintza hasi ziren. Metalen Aroan, aldiz, metalarekin gauzak egiten hasi ziren.

Ibon Lete

10 urte

Gizakia kobazuloetan bizi zen. Bertan bizitzeaz gain, marrazkiak ere egiten zituzten (animaliak nola ehizatu, adibidez).



Malen Perez de Lastra

9 urte

Sua zertarako erabiltzen zuten ere ikasi genuen proiektu horrekin. Argia emateko, gorputza berotzeko eta janaria egiteko balio zuen suak.



Markel Tardio

9 urte

Lehen, hezurrek gauza askotarako balio zuten. Adibidez, janaria mozteko edo ehizarako.



ITURBURU

Opor bueltako lehen egunean, GAUR BE EUSKARAZ eguna ospatu genuen.

Egun horretan urtero jolasak egiten ditugu eta oraingoan benetan berezia izan zen, egiten zuen hotzagatik eta elurtuta topatu genituelako eskola inguruak.



ARRATEKO ANDRA MARI

Aurtengo ikasturte hasieratik Pentsaera Konputazionala lantzen ari gara HH2tik hasita LH6. mailara arte. Olentzero eta Mari Domingik, horretaz konturatuta, gela guztietarako jolas bereziak ekarri dizkigute. Adibidez, 3.zikloan “Robotika” landu ahal izateko “Lego Spike Prime” kutxa batzuk. Ikasleak pozez zorutzen daude erronka berri honen aurrean!!!!



AMAÑA



Hilabete honetan eskolako ate irekiak izango ditugu! Urtarrilaren 31n hainbat ekintza izango ditugu guztion eskura: Henna tailerra, Just dance, txapak egiteko aukera, malabare tailerra, ipuin kontalaria... Animatu gu ezagutzera! Guztiok zaudete gonbidatuta! Munduko jaki ezberdinak dastatzeko aukera ere izango duzue.

URKIZU

Urte berria gogotsu hasteko 4., 5. eta 6. mailako ikasleak zinemara joan ginen, Coliseora, Bram Barrabas filma ikustera. Coliseora joateko aitzakiarekin, eskolatik taldean irten eta gure herriko kaleak ezagutuz antzokira joan ginen pasieran. Areto nagusian film dibertigarria ikusi genuen eta primeran pasa genuen.



LA SALLE



Begirada atzera botatzen, Olentzero eta Mari Domingi ikastetxean egon zirela gogoratuko dugu, gure txikienak ilusioz betetzen. Gainera, urtea ondo bukatzeko, Gabonetako Jaialdia izan genuen eskolako patioan. Bertan gabon kanta entzun, dantzak ikusi, gabon-mozorroak erakutsi eta marrazki lehiaketako irabazleak ezagutu genituen.

SAN ANDRES

Urtero bezala, oporren buelta arintzeko, tailerrak antolatu ditugu San Andres eskolan. Taldeak nahastu eta mahai-jolasetan, esketxak egiten eta beste zenbait gauzatan ibili gara, beti ere bi helburu nagusi lortu nahian: ondo pasatzea eta euskararen erabilera sustatzea.



ALDATZE



Gure eskolako 6. mailako ikasleak Inspira STEAM proiektuan parte hartzen ari dira, nesken artean bokazio zientifiko eta teknologikoak sustatzeko helburuarekin. Ekimen honen bidez, ikasleak zientzia eta teknologiaren mundura hurbildu eta gozatzen ari dira.



ARIES

*martxoak 21
apirilak 20*

Urte berriko energia oraindik barruan daramazu. Mugitzeko eta jolasteko gogoia izango duzu, baina atsedeen pixka bat ere ondo etorriko zaizu.



TAURUS

*apirilak 21
maiatzak 20*

Errutinara itzultzea kostatu daiteke, baina poliki-poliki gustura sentituko zara. Gauza txiki gozoek animatuko zaituzte.



GEMINI

*maiatzak 21
ekainak 20*

Kontatzeko mila gauza izango dituzu. Lagunekin hitz egiteak eta barre egiteak indar handia emango dizu.



CANCER

*ekainak 21
uztailak 20*

Lasaitasuna bilatuko duzu egun hauetan. Lagun batekin momentu goxo bat partekatzeak bihotza berotuko dizu.



LEO

*uztailak 21
abuztuak 20*


Zure konfiantza handituko da berriro. Ideiak proposatuko dituzu eta besteek gustura jarraituko dizute.



VIRGO

*abuztuak 21
irailak 20*

Antolaketa berriro ere zure lagun handia izango da. Gauzak txukun eginda, askoz lasaia ibiliko zara.



LIBRA

*irailak 21
urriak 20*

Oreka bilatuko duzu jolasetan eta lanetan. Zure lasaitasunak ingurukoak ere baretu egingo ditu.



SCORPIO

*urriak 21
azaroak 20*

Zure begirada zorrotzak detaileak harrapatuko ditu. Zerbaitek arreta emango dizu eta jakin-min handia piztuko zaizu.



SAGITARIO

*azaroak 21
abendua 20*


Abentura txikiak bilatuko dituzu egunerokoan. Egun arrunt batek ere sorpresa polita ekar dezake.



CAPRICORNIUS

*irailak 21
urriak 20*

Oso arduratsua ibiliko zara eta hori ondo etorriko zaizu. Ahaleginak bere fruituak emango ditu.



AQUARIUS

*urtarrilak 21
otsailak 20*

Idea berriak etorriko zaizkizu burura, batzuk nahiko bitxiak! Partekatzen badituzu, barre ugari sortuko dira.



PISCIS

*otsailak 21
martxoak 20*

Irudimena piztuta izango duzu. Marrazki, ipuin edo ametsen bidez zure barruko mundua erakutsiko duzu.



TESTUA: EKHI BELAR

Nile eta Xanet Arrizabalaga Arakistain bikiak Maite Zangitu Arana amamarekin elkartu ditugu gure bulegoan. Urkizun gaudela kontuan edukita, ez zuten asko ibili behar izan, hirurak bizi baitira auzoan. “Ni bizi nintzen etxean bizi dira eurak”, esan digu amamak.

Zein da zuen ogitarteko gustukoena?

MAITE: Aurrutzopil ogitartekoa.

NILE: Urdaiazpiko ogitartekoa, tomate pixka batekin.

XANET: Txokolate ogitartekoa.

Nire gustukoenak aukeratu dituzue! Eta platerrean, zer nahiago duzue?

MAITE: Txipiroiak.

NILE: Itsaski-paella.

XANET: Makarroiak tomatearekin eta gaztarekin.

Zein da zuen musikari edo talderik gustukoena?

NILE: Zetak.

XANET: ETS.

MAITE: Niri Benito

Lertxundi eta horrelakoak gustatzen zaizkit gehiago.

Zuen denbora librean zer egiten duzue normalean?

XANET: Lagunekin kalean jolastu.

NILE: Musika entzun eta dantza egin.

MAITE: Liburuak irakurtzeko talde batean nago, Kaleetan Kantuz-en ere banabil, puntua egiten dut, lagunekin kafea hartu... Gauza asko!

Denbora libre duzuenean elkarrekin egoteko ohitura duzue?

MAITE: Ez gara asko egoten, gauza askotan aritzen direlako: dantza, igeriketa... Baina lantzean behin margotzera joaten

gara elkarrekin. NILE ETA XANET: Margotzea asko gustatzen zaigu.

Zer ikusten duzue telebistan?

XANET: YouTubeko bideoak.

NILE: ‘Go!azen’ eta ‘Irabazi arte’.

MAITE: ETB 2 ikusten dut normalean, baina baita beste gauza batzuk ere.

Maite, nolakoak dira Xanet eta Nile?

MAITE: Oso helduak, alaiak, beti aurkitzen dute zer egin...

Eta amama nolakoa da?

NILE ETA XANET: Asko laguntzen duen pertsona. MAITE: Fritoak egiten, ezta? (Barreak).

ORBURU LOREAK CURRYAREKIN

OSAGAIK:

- 12 orburu
- Tipula ½
- 6 baratxuri ale
- 1 koilarakada irin
- 200 ml ur orburuak egosteko
- 1 koilaratxo curry
- 200gr hirugihar
- Piperbeltza
- Olia
- Gatza




NOLA EGIN:

1. Kazola bat urez bete eta irina, ozpina, limoi erdiaren zukua eta gatza gehitu. Orburuei kanpoko hostoak eta punta moztu. Ondoren, hasierako zatia moztu, erditik banandu, kazolan sartu eta 20-25 minutuz egosi. Sardexka erraz sartzen denean egosita izango ditugu. Erretilu batera pasa, buruz behera, eta gorde.
2. Tipula eta baratxuri aleak zuritu eta zatitu. Kazola zapal batean olio bota, bero dagoenean baratxuria gaineratu, "dantzari" hasten direnean tipula gehitu, irabiatu eta gatzez ondu. Su motelean kozinatu 5 minutuz.
3. Ondoren, irina gaineratu eta irabiatu kolorea aldatu arte. Orburuak egositako ura gehitu, irabiatzen dugun bitartean, nahi dugun lodiera aurkitu arte. Curry-a gehitu, irabiatu eta 5 minutuz egosi eta gorde.
4. Orburuei zurtoinak moztu, guztiak txikitu eta gorde. Ohol batean eta eskuen laguntzaz, orburuak irekiko ditugu lore bat osatuz.
5. Zartagin bat sutan jarri eta bero dagoenean olio pittin bat gehitu. Orburuak bi aldeetatik gorritu. Kazolara gehitu.



ZORTZI EZBERDINTASUNAK



LABIRINTOA

LABERINTOA



1,2,3 eta 4...has!!!

AURKITU HITZ GUZTIAK

• Aurkitu hitz guztiak.

K	O	R	E	A	Z	E	T	A
U	T	Z	B	R	A	S	I	L
B	H	X	P	G	H	M	M	Y
A	U	B	I	E	L	U	O	T
J	A	P	O	N	I	A	N	X
E	W	E	X	T	A	T	G	I
S	M	R	G	I	M	I	O	L
O	K	U	I	N	N	A	L	E
I	N	D	I	A	G	O	I	S
F	I	L	I	P	I	N	A	S
T	U	K	R	A	I	N	A	J

- 1. Korea: ✓
- 2. Txina:
- 3. Argentina:
- 4. Japonia
- 5. India:
- 6. Filipinas:
- 7. Mongolia:
- 8. Peru:
- 9. Txile:
- 10. Kuba:
- 11. Ukraina:
- 12. Brasil:

ASMATU ESALDIA

A ¹	B ²	C ³	D ⁴	E ⁵	F ⁶	G ⁷
H ⁸	I ⁹	J ¹⁰	K ¹¹	L ¹²	M ¹³	N ¹⁴
O ¹⁵	P ¹⁶	Q ¹⁷	R ¹⁸	S ¹⁹	T ²⁰	U ²¹
V ²²	W ²³	X ²⁴	Y ²⁵	Z ²⁶		
5	22	20	11	1	19	1
5	7	9	11	1		

ASMATU ESALDIA
ALFABETOA ZAMAKATZ IDONTZ

Hemen jarri!

LE- HIAKE- TA

HURRENGO GAIA:
MOZORRO
argazkiak

Bidali zure
marrazki edo
argazkiak
OTSAILAK 18
baino lehen
...eta kitto!
Euskara Elkartera
(Urkizu 11, Eibar) edo
aldizkaria@etakitto.eus
email helbidera



Aurreko asteko irabazlea



Aupa **EKHI**, txapeldun!
Zuk bai jakin oporrak zer
diren eta horregatik zeu
irabazle. Liburuak eta
...eta kitto!-ko produktuak
zuretako!
ZORIONAK!

6 urte

Eta postaria gutun bihurtu zen

Emiliano aldizkariak eta egunkariak irakurritz saiatzen da mundua ezagutzen, eta beti haserre amaitzen du gerrek sekula ez dutelako akaberarik. Emiliano postaria da, baina, egia esan, gutuna izan nahi luke, beharbada horregatik oso-oso urrutira eramango duten helbide eta zigilu batekin egiten du amets.



8 urte

Mati eta Zugarramurdiko misterioa

Mati desastre xamarra da eta berandu iritsi da gelakideekin Zugarramurdira egingo duen txangora. Egun berezia izaten ari da goizean goizetik eta gauza arraroak gertatzen ari zaizkio etengabe. Hazkura handia du ipurmasailean eta jarraika duen hots bat entzuten du han eta hemen.



10 urte

Anna Kopek eta ezpata bikingoa

Mundua mugitzen hasi da berriz pandemiaren hilabete okerrenak pasatu ostean. Tokioko Olinpiar Jokoak hastear dira, eta hara joan beharko du Jokinen eta Uxueren amak. Baina seme-alabak izeba Leireren etxean geratuko dira, Iruñean. Ez dakitena da etsaia beren bila dabilela, mendeku gosez.



BITXIKERIAK

Artizarra da **erlojuaren** orratzen **noranzkoan** biratzen duen planeta bakarra.

Mihia **16 muskulu** **indibidualek** osatzen dute.

Lehen **palmondoa** **ipar poloan** hazi zen. Bai, baina **duela 50 milioi** urte.

WILLY GALDUTA

EGILEA: NAIA IRAOLA ORTIZ

Bazen behin, orka bat Willy zuena izena eta jolastea asko gustatzen zitzaiona. Bat-batean, itsas-zaldi bat ikusi eta bere atzetik joan zen. Konturatu orduko, Willy bakarrik geratu zen eta, alde batera eta bestera begiratzen bazuen ere, ez zuen animaliarik ikusten.

Orduan, soinuak entzun zituen. Bere gurasoak ziren, bila zenbiltzala.


- Non zaude, Willy? Non zaude?

Gurasoak kezkatuak zeuden eta zera galdetzen zieten denei:

- Orka urdin bat ikusi al duzue?

Hamar laguni galdetu zieten eta, azkenean, hamaikagarrenak bazekien nondik joan. Ezkerretik joateko esan zien.





Bat-batean gurasoek Willy ikusi eta besarkada handi bat eman eta arazoa konpondu zuten.



Zu bai margolari

Zu bai

Nola bukatzen da istorio hau?



Zu bai margolari

margolari

margolari

Zu bai m

argolari

Zu

Zu bai

bai margolari